

## KONTROL MOZIOA

### Marrutxipiko sarrera berria eta Sorleku parkea direla eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko otsailaren 12an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 8an, *El Diario Vasco*-ren bidez jakin genuen, Marrutxipiko sarrera berria egiteko lan batzuk luzatuko direnez, sarrera berria martxan jartzea udazkenera atzeratuko dela.

2023ko azaroan sarrera berri horren inguruko mantenuari eta Sorleku parkeari buruz galdetu genuen. Udal Gobernuaren erantzuna izan zen Marrutxipiko lanak uda partean bukatuko zirela eta, hortaz, eremuko garbiketa eta lanak orduan hasiko zirela. Orain, lanak atzeratu direla jakin dugunez, gai honi buruzko interpelazioa eraman genuen otsaileko batzordeetara.

Garai berean jakin dugu, 2024ko aurrekontuetarako, Udal Gobernuak soilik 66.000 euroko kontu-sail bat gorde duela Sorleku parkearentzat, eta datorren urterako kontu-sailik ez dagoela.

Gogorarazi behar dugu 2021ean Ekialdeko Barrutiak eta Udal Gobernuak onartu zutela eremu horretan Sorleku parkea egitea. Sorleku parkea 2018ko proiektu bat da, zehazki Murtxup programa irabazi zuten bi neska donostiarren proiektua, zeina ahanzturan egon den; 2021ean Ekialdeko Barrutiak eta Udal Gobernuak onartu egin zuten parkea egitea eta 600.000 euroko aurrekontua izango zuela aurreratatu zen. Hura egiteko konpromisoan Udalak 400.000 euro jarriko zituen bi urtetan eta Ekialdeko Barrutiak beste 200.000 bi urtetan ere bai.

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Parkearekin hasteko, 2022an, proiektu parte-hartzaile bat egin zuten Intxaurrondon bertako eragile, ikastola eta bizilagunekin, eta 2023ko martxoan jendaurrean aurkeztu zuten Sorleku parkeko proiektua. Bileran bertan esan zutenaren arabera eta Udalearen webgunean irakur daitekeenez, 2023ko martxotik hasita eta 18 hilabeteko epean pausoak hauek izan behar ziren:

- Oinarrizko proiektua idaztea
- Exekuzio-proiektua idaztea
- Obraren lizitazioa
- Exekuzioa

Honi guztiari buruz interpelazioa egin genuen azken udal batzordeetan. Alde batetik, finantziarioari buruz galdetu genuen, non argi geratu zen Udal Gobernuak soilik 66.000 euroko aurrekontua aurreikusi duela eta ez duela inongo kontu-sailik gorde datorren urterako. Hori bai, zinegotzi ordezkariaren hitzetan, haien asmoa da aurrekontua moldatzea.

Eta bestalde, proiektuaren exekuzioari buruz ere galdetu genuen. Azaroan, zinegotzi ordezkariak esan zigun exekuzio-proiektua idatzia zegoela eta urtearen amaieran onartuko zuela Tokiko Gobernu Batzordeak. Sorlekuko lanak, alegia, 2024ko uda amaieran hasiko zirela eta hura egiteko epea bost hilabetekoa izango zela. Hilabete honetako batzordean, aldiz, zinegotzi arduradunak esan digu proiektua bera balorazio fasean dagoela.

Argi dago eremu hori eta bertan egin behar den parkea ez direla Udal Gobernu honen lehentasun. Eremua hondakinez betea egotea baimentzen dute, eremu horretarako proiektu zehatz bat egonik. Gainera, proiektua gauzatzeko parte hartu zutenei ez zaie aldaketa horien guztien berri eman eta bizilagunak parkearen esperoan daude. Hortaz, ezinbestekoa da Sorleku parkea egiteko irtenbideak lehenbailehen bilatzea.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Sorleku parkearen proiektua bere horretan egiteko konpromisoa hartzea, inongo moldaketarik gabe, eta lehenbailehen, azaroan esan bezala, exekuzio-proiektua Tokiko Gobernu Batzordean onartzea.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari 2023ko martxoan Partaidetza Sailak egin zuen bilera irekiaren pareko beste bilera bat egin dezala Intxaurrendon, prozesu partehartzailean parte hartu zuten pertsonei eta eragileei azken aldaketen eta atzerapenen berri emateko.

Donostian, 2024ko otsailaren 15ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia